



Altzako Serafinetako jai batzordeko hainbat kide, bilera batean.  ALTZAKO SERAFINAK

Serafinak, jairik gabeko Altzako auzuneak biziberritzeko

Donostiako auzo eta herrietan jai gutxi bazeuden, beste bat batu da aurtengo jaien egutegira: Altzako Arriaga Serafinak jaiak. Arriagako zonako zazpi auzuneak hartuko dituzte jaiak, inguru guztiari bizipoza emateko helburuarekin.

✦ Beñat Parra Rodriguez

Ez dira gutxi gaur egun euren jai propioak dituzten Altzako auzuneak: Larratxokoak, Herrera-koak, Buenavistakoak eta Oletakoak ospatzen dituzte ekainean, san-martzialak uztailaren hasieran eta Jolastokietakoak ospatu berri dituzte orain. Ordea, auzo handia da Altza, eta badaude azken urteotan jai propiorik izan ez duten zenbait auzune; hain zuzen ere, horri buelta emateko

antolatu dituzte aurten Arriagako zonan Serafinak. Jai batzordeko kide Roberto Arinek azaldu duenez, zazpi auzune hauek hartuko dituzte jaiak: Erroteta, Arrizar, Arriberrri, Santa Barbara, Elizasu, Los Boscok eta Darieta.

Duela urtebete inguru hasi ziren jaiak antolatzeko ideia lantzen, Arinek dioenez: «Errotetako Gurea elkar-tekoak hasi ziren Errotetan jaiak antolatzeko ideiarekin bueltak ematen, eta

ni Boskotarrak elkarteko presidentea nintzenez, laguntza eskatu zidaten. Hala ere, nik esan nien aproposagoa ikusten nuela jaiak zona osora zabaltzea, zeren lehen bazeuden jaiak auzune bakoitzean, baina 1987tik ez geneukan ezer. Horrela, hamabost bat lagun hasi ginen biltzen, nahiz eta, azkenean, zortziren artean antolatuta ditugun jaiak».

Dirua biltzeko, auzoko komertzio eta taberna ugariaren babesak jasotzen hasi zirela nabarmendu du Arinek, baita auzotarrena ere, urtean zehar antolatu dituzten jardueretan —herri bazkariak, txosna inauterietako Eltze Festan, eta abar—: «Jendeak jaietarako gogoak duela ikusi genuen, eta horri esker jarraitu dugu aurrera».

Zergatik Serafinak?

Jai askok santuren baten izena daramate, eta tradizio horri buelta bat emateko asmoz jarri diete jaiak aipaturiko izena. Hala azaldu du jai batzordekoak: «Gure elkarteko kide maitatu bat Serafin da, eta bere ome-nez izen hori jartzea pentsatu genuen, baina berari lotsa ematen zion. Ordea, beste kide bat etorri zen kontaktzen Serafinak aingeru mota batzuk direla, eta horren harira erabaki genuen izen hori jartzea, besterik gabe».

Horrela, Harria parkean jarriko dute jai gune nagusia, eta haur, gazte, heldu zein zaharrentzako jarduera andana antolatu dituzte hurrengo ostegunetik igandera. Lehenengo urtea izanik, apur bat urduri agertu da Arin, baina argi dauka ondo pasatuko dutela eta auzoak eskertuko duela: «Jende jatorra dago auzo honetan, eta guztiak jaiak disfrutatzen animatu nahi ditugu; esan gabe doa ez dugula inolako erasorik onartuko. Jaiak ondo ateratzen badira, urtero antolatzen hasiko gara eta eskatuko dugu belar-naldi berriak ere inplikatzeko antolaketan, auzoa biziberritzeko».

Aingeruak ala deabruak, auzoa egiteko lanean ari dira Arin eta beste Serafinak, hori baita komunitatea sendotzeko bidea; ugaritu daitezela, bada, Serafinak Altzan eta hiri osoan! ●

OSTEGUNA 26

18:00

Txupinen irteera, auzoko kaleetan barrena, Taupada Samba eta gozokiekin.
Ibilbidea: Elizasu, Santa Barbara, Arriberry, Los Boscos, Arrizar, Erroteta eta Harria.

19:30 · Harria parkean

Pregoia, Naroa Maldonado eta Marina Ostolaza bizilagunen eskutik.

19:45 · Harria parkean

Txupinen igoera eta jaien hasiera.

20:00 · Harria parkean

Balkoiak apaintzeko I. lehiaketaren hasiera eta bereizgarriak ematea (balkoi irabazleak 2025eko Txupin izateko ohorea izango du).

20:00

I. Arriaga-Serafinak argazki lehiaketaren hasiera. Gaia: Arriaga-Serafinak jaiak.

20:00 · Santa Barbarako erretiratuen etxean

Luntxa.

OSTIRALA 27

17:00 · Kiroldegiaren ondoan

Haur jolasak, Boskotarrak elkarteak antolatuta.

18:00 · Tomasene Kultur Etxean

Zinema: *Gru mi villano favorito*.

18:30 · Kiroldegiko haurren agertokian

Angel magoa.

19:30 · Erroteta eta Arrizar inguruetan

Poteo herrikoa, Txaranga X-rekin.

20:00 · Haurren agertokian

Karaokea, adin guztietako jendearentzat.

20:00 · Elizasu aldean

I. 'Arriaga Rock' jaialdia: The Gu, Ezinezkoa eta Bellcross.

20:30

Sardina jate herrikoa, Santa Barbarako Elkartasuna elkarteak antolatuta.

22:00 · Kiroldegi aurreko agertokian

I. Rap jaialdia: ELC310, Unotresmobb eta El Orbe&Kost.

22:30 · Harria parkean

Dantzaldia, Tsunami orkestraren eskutik.

LARUNBATA 28

09:00

Diana. Ibilbidea: Elizasu, Santa Barbara, Arriberry, Los Boscos, Arrizar, Erroteta eta Harria.

10:00 · Harria parkean

Bigarren eskuko azoka txikia.

10:30 · Naranjito parkean

Haurrentzako areto futboleko txapelketa.

11:30 · Naranjito parkean

Haurrentzako 3x3 saskibaloi txapelketa.

12:00 · Arrizarren

Bermut saioa, Rocking Velvetekin.

12:00 · Santa Barbaran

Bermut saioa, Miguelmariren emanaldiarekin.

12:30 · Kiroldegiko haurren agertokian

Antzerkia: *Txintxeta, klipa eta txorroskilo*.

16:00 · Canada tabernan

I. tute txapelketa.

17:00

Karate erakustaldia, Smokescreen eta Pauso-Ken eskutik.

17:00 · Santa Barbarako erretiratuen etxean

Dantzaldia, Jon Insuaren eskutik.

18:00 · Harria parkean

Sagardo eguna.

18:00 · Roteta, Arrizar eta Los Boscos

Erraldoi eta buruhandiak gautxori txarangarekin.

19:00 · Tomasene inguruan

Dantza erakustaldia Alba Vidalekin.

20:30 · Kiroldegiko haurren agertokian

Bingo musikatua.

22:00 · Harria parkean

Junka & The Gogo's eta Txolas DJ-ak.

IGANDEA 29

09:00

Diana. Ibilbidea: Elizasu, Santa Barbara, Arriberry, Los Boscos, Arrizar, Erroteta eta Harria.

10:30

I. toka eta bote txapelketa, Santa Barbarako Elkartasuna elkartearen eskutik.

11:00 · Harria parketik

Paseo historikoa Altzako herrian, Altzako historia mintegiaren eskutik.

12:00 · Harria parkean

Ardo eguna, Viguisaren eskutik.

12:30 · Mirador tabernan

Bermut saioa, Jon Insuaren emanaldiarekin.

12:30 · Auzoan zehar

Kantujira herrikoa.

14:30 · Harria parkean

Herri bazkaria: paella jana.

16:00 · La Terraza tabernan

I. mus txapelketa azkarra.

17:00 · Erroteta-Goikoa parkean

Haurrentzako jolasak.

17:30 · Gurea elkartean

Txokolate jana bizkotxoekin.

19:00 · Harria parkean

Kultura anitzeko erakustaldia: Kichwa Otavalo.

20:00 · Harria parkean

Balkoien eta argazkien lehiaketako sari banaketa.

20:30 · Harria parketik Elizaduraino

Txupinen jaitsiera eta prozesioa kandlekin.

ASTELEHENA 30

Ferianteei esker, feriek prezio merkeak izango dituzte.